



Proiektutan Oinarritutako Ikaskuntza Metodologiaren Inplementazio Proposamena

Ane Beldarrain Amoriza

Ikasle kaiera

IKD baliabideak 4 (2012)

AURKIBIDEA

1. PROIEKTUAREN AURKEZPENA.....	3
1.1. Galdera eragilea	3
1.2. Eszenatokia.....	3
1.3. Proiektuan landuko diren gaiak.....	4
1.4. Ikaste prozesuaren emaitzak.....	4
1.5. Lan-zama	5
1.6. Taldeak: tamaina eta osatzeko irizpideak.....	5
2. METODOLOGIA ETA EBALUAZIO SISTEMA	5
2.1. Metodologia	5
2.2. Ematekoen zerrenda	5
2.3. Ebaluazioa	6
3. LANAREN ASTEZ ASTEKO PLANIFIKAZIOA.....	10
4. BIBLIOGRAFIA	20
Proiektua garatzeko oinarritzko testuak.....	20
Bibliografia gehiago	22
ERANSKINAK.....	25
E.1. JARDUERAK	25
E.2. EMATEKOAK.....	47
E.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.....	51

1. PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Lan honetan, eskoletan gaur egun kezka sortzen duen gai baten inguruko eztabaidan murgildu eta parte hartzea proposatzen zaizu, horretarako proiektu txiki bat aurkeztea eskatzen zaizularik.

1.1. Galdera eragilea

Zein trataera eman euskarari, gaztelaniari eta ingelerari gure eskolan ikasle eleaniztunak lortzeko?

1.2. Eszenatokia

Orain dela gutxi, Bizkaiko eskola publiko batean hasi zara lanean. Laster konturatu zara, zu ikasle zinen garaiarekin alderatuta, egungo eskolak eskakizun eta konplexutasun handiagoko lana duela hizkuntza arloan: eskatzen zaio ikasle guztien komunikazio-kompetentzia eleanitza garatzea, eta eginkizun hori hizkuntza aldetik gero eta heterogeneoagoak diren ikasgeletan burutu behar du, gainera; ahaztu gabe, euskararen indarberritzean hezkuntza sistemak duen erantzukizuna.

Egoera aldatu da eta eskolak bere planteamenduak eguneratu behar ditu. Eztabaida bizi-bizia da, kalean dago: orain arteko hizkuntz ereduarekin jarraitu?, eredu bakar batera pasatu?, zelan jokatu curriculumeko hizkuntzekin?, zer toki eman ingelesari?, zeintzuk aldaketa egin arlo metodologikoan helburuak lortzeko?.

Zure ikastetxean ere eztabaida horretan murgilduta zaudete : zein izan behar da curriculumeko hizkuntza bakoitzaren presentzia gela barruan zein kanpoan, noiz hasi hizkuntza bakoitzarekin, zer-nolako trataera eman hizkuntzei, zeintzuk izan behar dira metodologia irizpide nagusiak, zeintzuk pauso gehiago eman euskararen normalizazioan, ...? Eztabaida bideratu eta aurrerapausoak eman nahirik, ikasturte amaierarako klaustro bat iragarrita dago eta bertan irakasleek ondoko hau erabaki beharko duzue: zeintzuk diren, zuen ustez, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan agertu beharreko ideia edota irizpide nagusiak curriculumeko hizkuntzen trataera dela eta.

Zuri gaia garrantzitsua iruditzen zaizu eta eztabaidan aktiboki parte hartu nahi duzu. Horregatik, zu bezala eskolara heldu berriak diren eta hasieratik zurekin ondo moldatu diren irakasle batzuekin hitz egin eta aipatutako klaustorako proposamen bat aurkeztea pentsatu duzue.

Zuzendariak azaldu duenez, proposamen idatzi bat aurkeztu beharko duzue ("Ikastetxeko Hizkuntz Proiektuaren zenbait oinarri : curriculumeko hiru hizkuntzen trataera gure eskolan"), klaustroan eztabaidatu eta bozkatuko dena. Proposamena bi dokumentutan azalduko da, bata bestearen osagarri izango direnak: oinarritzko dokumentua eta justifikazio dokumentua. Oinarritzko dokumentuan, ikastetxean curriculumeko hizkuntzei eman beharreko trataeraren eta erabileraren inguruko puntu nagusiak (helburuak, jardun-irizpideak, ...) jasoko dira modu labur eta argian (aurrerago, gurasoei informazioa emateko baliagarria izan dadin). Justifikazio

dokumentuan, izenak berak adierazten duen bezala, oinarritzko dokumentuan zehazten diren puntuen justifikazio teorikoa garatuko da.

Beraz, hiru hilabeteko epea duzu zure lankideekin batera informazioa bildu, gaian sakondu eta eskolarako proposamen bat aurkezteko klaustroan.

1.3. Proiektuan landuko diren gaiak

Haur Hezkuntzako Hizkuntzaren Didaktikarako Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan irakasgaiaren zenbait gai dago inplikaturata proiektuan:

- Euskal gizartearen egoera soziolinguistikoa. Eskolaren eginkizuna euskararen biziberritze-prozesuan.
- Hezkuntza elebiduna. Programa elebidun motak. Hezkuntza elebidunaren marko teorikoa.
- Hezkuntza eleaniztuna. Komunikazio-gaitasun eleaniztuna. Pertsona eleaniztuna. Hizkuntzen trataera. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza. Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua.
- Hezkuntza elebiduna eta eleaniztuna EAEn. Indarrean diren hizkuntza ereduak (ezaugarriak, bilakaera eta emaitzak. Emaitzen analisia eta ondorioak). Hizkuntza aldaerak eta haien trataera euskararen kasuan. Hezkuntza eleaniztunerako proposamen berriak. Hizkuntzak EAEko eskola curriculumean.

1.4. Ikaste prozesuaren emaitzak

Proiektua burututakoan gai izango zara:

- A. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ezaugarri nagusiak ezaguturik, edozein eskola eta berau kokatuta dagoen herriko errealitate soziolinguistikoa aztertzeke eta baita errealitate horrek hizkuntzen irakaskuntzan nola eragiten duen azaltzeko ere. (*1k, *3k)
- B. Gure eskoletan indarrean dauden hizkuntza ereduaren emaitzak azaltzeko eta baita emaitza horiek hobetzeko proposamenak egiteko ere, horretarako hezkuntza elebidunaren inguruko ikerketak eta adituen azalpenak kontuan hartzen dituzularik. (*1k, *3k)
- C. Ingelesaren irakaskuntzarako dauden proposamenak azaldu eta haren sarrera goiztiarraren aldeko eta kontrako argudioak emateko. (*1k, *2k)
- D. Curriculumeko hizkuntzek (euskarak, gaztelaniak eta ingelesak) izan behar duten trataeraren gaineko proposamen argia eta ondo arrazoitua egiteko, helburua izanik ikasleek gaitasun eleaniztuna lortzea. (*1k, *2k, *3k, *4k)
- E. Proposamena -eta berau oinarritzen duten ezagutza eta arrazoiak- modu argian eta egokian komunikatzeko. (*4k)

F. Taldean lan egiteko. (*zeharkakoa)

(* irakasgaiaren konpetentziak)

1.5. Lan-zama

Lan honek irakasgaiaren %75 inplikatzeko du, hau da, 4,5 kreditu eta 112,5 ordu ikasle bakoitzarentzat. Lauko taldeak osatzen badira, talde bakoitzak 450 ordu izango luke proiektua egiteko.

1.6. Taldeak: tamaina eta osatzeko irizpideak

Taldeak 4 pertsonen osatuko dira. Osatzeko irizpideei dagokienez, kontuan hartuko dira ordura arte funtzionatu izan duten taldeak eta baita beste lan batzuetarako bigarren kurtsoko lauhilabetekoan osatuko direnak (modulu-lana, adibidez). Hori bai, edozein kasutan, ziurtatu beharko da taldekideek astean 3 ordu izango dutela, gutxienez, elkartu eta batera lan egiteko.

2. METODOLOGIA ETA EBALUAZIO SISTEMA

2.1. Metodologia

Proiektua arrakastaz burutzeko, ezinbestekoa izango da zu eta zure taldekideak pertsonalki inplikatu eta elkarrekin lan egitea. Bai gela barruan, bai gelaz kanpo. Batzuetan, informazioa bilatuz, adituen azalpenak irakurriz, hausnartuz; beste batzuetan, eztabaidatuz, ikasitakoa besteei azalduz, denen artean dokumentuak landuz, Proiektuak iraungo duen bederatzi astean barruan, zuen lanerako lagungarriak izango direlakoan, askotariko jarduerak proposatuko dira eta, aldizka, ematekoak eskatuko dira.

2.2. Ematekoen zerrenda

1. ematekoa: *Eskolaren eta haren inguruaren ezaugarri soziolinguistikoak*
2. ematekoa: *Hizkuntza ofizialak ikastetxean: kontuan izateko alderdiak edota irizpideak eta horien justifikazio teorikoa*
3. ematekoa: *Posterra: Hezkuntza eleaniztunerako proposamena*

4. Eskolako klaustrorako proposamen idatzia: *Ikastetxeko Hizkuntz Proiektuaren zenbait oinarri: curriculumeko hizkuntzen trataera gure eskolan* (Proposamena bi dokumentu ezberdinetan azalduko da: a) Oinarrizko dokumentua -proposamenaren puntu nagusiak era argi eta laburrean- eta b) Justifikazio dokumentua -beste agirian jasotzen diren puntuen justifikazioa-
5. Taldearen karpeta (Ondoko dokumentuak biltzen dituelarik: Taldearen osaketa eta barne funtzionamendurako arauak, bileren aktak, taldearen funtzionamenduari buruzko hausnarketa, talde lanaren eta taldekideen balorazioa)

2.3. Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, *proiektuak* %57ko pisua izango du irakasgaiari; hala ere, kontuan izan, irakasgaiaren beste atal batzuek - hala nola, *gutxieneko ezagutzak* (%12) eta *irakasgaiari egindako lanari buruzko balorazio indibidualak* (%10)- oso lotura estua izango dutela proiektuarekin.

IRAKASGAIAN BALORATUKO DIREN ATALAK	Taldean/ Bakarka	%
Moduluko lana	T	%16
PROIEKTUA	T	%57
Gutxieneko ezagutza	B	%12
Irakasgaiari egindako lanari buruzko balorazio indibiduala	B	%10
Ikaslearen jarrera eta parte hartzea	B	%5

Proiektuari dagokion puntuaziotik, %85a proiektua bera baloratzeko erabiliko da eta gainontzeko %15a, taldearen funtzionamendua baloratzeko (ikus hurrengo koadroan ebaluazio irizpide zehatzagoak).

Proiektua		%
Ematekoak	1.a	%8
	2.a	%12

	3.a	%15
Eskolako klaustrorako proposamenaren idatzia		%50
Taldearen funtzionamendua: taldearen karpeta		%15

Proiektuan zure taldeak lortzen duen kalifikazioa eskuratu nahi baduzu, ondoren zehazten diren baldintzak bete beharko dituzu:

- lan guztietan parte hartu
- saio presentzialetan burutzen diren jardueretan parte hartu

Ematekoak epe barruan entregatu beharko dituzue. Eta irakasleak ematekoz emateko emango dizue feedback-a. Ematekoen bertsio zuzenduak onartuko dira; beraz, irakaslearen gomendioak eta zuzenketak hurrengo ematekoa egiteko erabili ahalko dituzue. Azkenik, eta ematekoen ebaluazio-irizpideei dagokienez, argi izan dezazuen zertan izango zareten ebaluatuak, errubrika batzuk osatuko dira.

Jarraian, lerrokatze taula batean, azaltzen dira aktibitateak eta ematekoak eta baita emateko horien notarako balioa

Ikaste prozesuaren emaitzak, jarduerak, ematekoak eta ebaluazioa: lerrokatze taula

Irakasgaiaren konpentziak	Ikaste prozesuaren emaitzak	Aktibitateak	Ematekoak	Ban/Tald	Ebaluazio irizpideak	Balioa
		Proiektuarekin hasteko: - Proiektua aurkeztu eta interesa piztu - Posterra: zer dakigu eta zer ikasi behar dugu - Lanerako argibideak irakaslearen aldetik				
1k, 3k	Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ezaugarri nagusiak ezaguturik, gai izan edozein eskola eta berau kokatuta dagoen herriko errealitate soziolinguistikoa aztertzeko (A)	- Irakurketa indibiduala - Informazioa bilatu, jaso, sintetizatu eta azaldu - Eztabaida zuzendua: EHko egoera soziolinguistikoaren azterketa I - Puzzlea:EHko egoera soziolinguistikoaren azterketa II - Irakasleak oinarritzko kontzeptuak argitzea - Eztabaida zuzendua: Eskolaren eginkizuna eta mugak euskararen biziberritze prozesuan	1.ematekoa: <i>Eskolaren eta haren inguruaren ezaugarri soziolinguistikoak</i>	T	rubrika	%8
1k,3k	Gai izan gure eskoletan indarrean dauden hizkuntza ereduaren emaitzak azaltzeko eta baita emaitza horiek hobetzeko proposamenak egiteko ere, horretarako hezkuntza elebidunaren inguruko ikerketak eta adituen iritzia kontuan hartzen direlarik (B)	- Irakurketa indibiduala - Informazioa bilatu, jaso, sintetizatu eta azaldu - Posterra: Hizkuntz ereduak: gure esperientziaz hausnartu - Puzzlea eta eztabaida zuzendua: hezkuntza programa elebidunak eta hizkuntza ereduak - Murgiltzearen baldintzak - Puzzlea: Hezkuntza elebidunaren emaitzak ulertu - Zergatik trataera bateratua? - Irakaslearen azalpenak eta argibideak	2.ematekoa: <i>Hizkuntza ofizialak ikastetxean: kontuan izateko alderdiak edota irizpideak eta horien justifikazio teorikoa</i>	T	rubrika	%12

1k, 2k	Gai izan ingelesaren irakaskuntzarako dauden proposamenak azaldu eta haren sarrera goiztiarraren aldeko eta kontrako argudioak emateko (C)	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa indibiduala - Informazioa bilatu, jaso, sintetizatu eta azaldu - Posterra: ingelesaren sarrera goiztiarra, aldeko eta kontrako argudioak - Zer da trataera bateratua? Zergatik trataera bateratua? - Irakaslearen azalpenak eta argibideak 	3. ematekoa: Posterra: <i>hezkuntza eleaniztunerako proposamena</i>	T	rubrika	%15
1k, 2k, 3k, 4k	Helburua izanik ikasleek gaitasun eleaniztuna lortzea, gai izan curriculumeko hizkuntzek (euskarak, gaztelaniak eta ingelesak) izan behar duten trataeraren gaineko proposamen argia eta ondo arrazoitua egiteko (D)	(egindako jarduerak guztiak)	Eskolako klaustrorako proposamen idatzia: <i>"Ikastetxeko Hizkuntz Proiektuaren zenbait oinarri: curriculumeko hizkuntzen trataera gure eskolan"</i>	T	rubrika	%50
4k	Proposamena -eta berau oinarritzen duten ezagutza eta arrazoiak- modu argian eta egokian komunikatzeko, bai ahoz bai idatziz (E)	Ikasgelan egiten diren jardueretan eta ikasleek egiten dituzten emateko guztietan arreta emango zaio hizkuntzaren erabilerari modu esplizituan, ikasleei beraien komunikazio gaitasuna hobetzeko proposamenak egiten zaizkielarik			rubrika	Gainditzeko baldintza
(zehark)	Gai izan taldean lan egiteko (F)	<ul style="list-style-type: none"> - Taldea eratu eta funtzionamendurako barne arauak adostu - Bileren aktak jaso - Taldearen funtzionamenduari buruzko hausnarketa - Talde lanaren eta taldekideen balorazioa 	Taldearen karpeta (irakasleak edozein momentutan eskatu dezakeena)	T	taldearen karpeta	%15

3. LANAREN ASTEZ ASTEKO PLANIFIKAZIOA

Irakasgaia 12 astetan landuko da. Horietatik 2 aste (hirugarrena eta hamargarrena Moduluko lana (*Aniztasuna eskolan*) bideratzeko erabiliko dira. Proiektuaren aurkezpena 2. astean izango da eta bederatzai aste iraungo du.

EGUTEGIA		
Otsaila	13	Irakasgaia
	20	Proiektua
	27	Moduluko lana
Martxoa	5	Proiektua
	12	Proiektua
	19	Proiektua
	26	Proiektua
Apirila	2	Udaberriko oporrak
	9	Udaberriko oporrak
	16	Proiektua
	23	Moduluko lana
	30	Proiektua
Maiatza	7	Proiektua
	14	Proiektua
	21	Azterketak
	28	

Aurrerago ikusiko denez, saio magistralak (talde osoarekin) eta gelako praktikak (taldea erdibituta) bereizi dira planifikazioan, baina banaketa hori taldeari dagokion ordutegia jarraituz egin da, eta ez jarduerak eskatzen duten irakaskuntza motaren arabera

1. astea

GAITASUNAK (proiektuaren bidez garatu nahi direnak)	GELA BARRUKO JARDUERAK (5 ordu astean)	GELAZ KANPOKO JARDUERAK (7,5 ordu astean)	EMATEKOAK
(F)	<p>Gelako praktikak (2 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Proiektua aurkeztu eta interesa piztu (40´) ○ Posterra: zer dakigu eta zer ikasi behar dugu (75´) <p>Talde handian (3 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Posterretan talde bietan azaldu dena komentatu eta, beharrezkoa balitz, ikasi beharrezkoa birdefinitu (soluziorik eman gabe, "dakigun" zenbait ezagutza zalantzan jarri eta ikasi beharrezkoa hobeto definitzeko) (20´) ○ Taldea eratu eta funtzionamendurako barne arauak adostu eta idatzi (60´) ○ Gidaren aurkezpena eta lanerako argibideak irakaslearen aldetik (60´) ○ Taldean lan egin (40´) 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Taldearen eraketari buruzko dokumentua idazten bukatu, ikasgelan egin ez bada (taldean) ○ Proiekturako eskola aukeratu ○ Irakurketa indibiduala 	<p>(Taldearen karpeta sartzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - taldekideen datuak - funtzionamendurako barne arauak)*

*Taldearen karpeta, izatez, ez da ematekoa; baina ikasleek eguneratua izango dute eta irakasleak edozein momentutan eskatu ahalko du aztertzeko

3. astea

GAITASUNAK (proiektuaren bidez garatu nahi direnak)	GELA BARRUKO JARDUERAK (5 ordu astean)	GELAZ KANPOKO JARDUERAK (7,5 ordu astean)	EMATEKOAK
<p>(A)</p>	<p><u>Gelako praktikak</u> (2 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Taldean lan egin (60´) ○ Irakaslearen azalpenak oinarritzko kontzeptuak argitzeko (60´) <p><u>Talde handian</u> (3 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Eztabaida zuzendua: Eskolaren eginkizuna eta mugak euskararen biziberritze prozesuan (60´) ○ Taldean lan egin (100´) ○ Gertakari kritikoen inguruko galdeketa (15´) 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Irakurketa indibiduala ○ Informazioa bilatu, jaso, sintetizatu eta azaldu ○ 1. ematekoa bukatu (taldean) ○ 2. ematekoan hasi lanean 	<p>(Taldearen karpetan sartzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Taldearen biler(ar)en akta(k)) <p>1. ematekoa: Eskolaren eta haren inguruaren ezaugarri soziolinguistikoak</p>

4. astea

GAITASUNAK (proiektuaren bidez garatu nahi direnak)	GELA BARRUKO JARDUERAK (5 ordu astean)	GELAZ KANPOKO JARDUERAK (7,5 ordu astean)	EMATEKOAK
<p>(A)</p> <p>(B)</p> <p>(F)</p>	<p><u>Gelako praktikak</u> (2 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Gutxieneko edukien froga 1 (30´) ○ Hurrengo pausoak zehaztu (20´) ○ Taldean lan egin (60´) <p><u>Talde handian</u> (3 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Puzzlea eta eztabaida zuzendua: Hezkuntza programa elebidunak eta hizkuntza ereduak (puzzlea eta eztabaida zuzendua) (65´) ○ Hurrengo pausoak zehaztu (10´) ○ Taldearen funtzionamenduari buruzko hausnarketa (50´) ○ Taldean lan egin (50´) 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Irakurketa indibiduala ○ Informazioa bilatu, jaso, sintetizatu eta azaldu ○ 2. ematekoan lan egin (taldean) 	<p>(Taldearen karpetan sartzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Taldearen biler(ar)en akta(k) - Taldearen funtzionamenduari buruzko hausnarketa)

6. astea

GAITASUNAK (proiektuaren bidez garatu nahi direnak)	GELA BARRUKO JARDUERAK (5 ordu astean)	GELAZ KANPOKO JARDUERAK (7,5 ordu astean)	EMATEKOAK
(B)	<p><u>Gelako praktikak</u> (2 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Taldean lan egin (120´) <p><u>Talde handian</u> (3 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Gutxieneko edukien froga 2 (40´) ○ Hurrengo pausoak zehaztu (20´) ○ Taldean lan egin (100´) ○ Gertakari kritikoen inguruko galdeketa (15´) 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Irakurketa indibiduala ○ Informazioa bilatu, jaso, sintetizatu eta azaldu ○ 2. ematekoa bukatu ○ 3. ematekoan hasi lanean (taldean) 	<p>(Taldearen karpetan sartzeko: - Taldearen biler(ar)en akta(k))</p> <p><u>2. ematekoa</u>: Hizkuntza ofizialak ikastetxean: kontuan izateko alderdiak edota irizpideak eta horien justifikazio teorikoa</p>

7. astea

GAITASUNAK (proiektuaren bidez garatu nahi direnak)	GELA BARRUKO JARDUERAK (5 ordu astean)	GELAZ KANPOKO JARDUERAK (7,5 ordu astean)	EMATEKOAK
(C)	<p><u>Gelako praktikak</u> (2 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Ingelesaren sarrera goiztiarra, aldeko eta kontrako argudioak (posterra) (75´) ○ Hurrengo pausoak zehaztu (15´) ○ Taldean lan egin (30´) 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Irakurketa indibiduala ○ Informazioa bilatu, jaso, sintetizatu eta azaldu ○ 3. ematekoan lan egin (taldean) 	<p>(Taldearen karpetan sartzeko: - Taldearen biler(ar)en akta(k))</p>
(B)(C) (D)	<p><u>Talde handian</u> (3 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Puzzlea eta eztabaida gidatua: Zer da trataera bateratua? Zergatik trataera bateratua? (120´) ○ Taldean lan egin (60´) 		

8. astea

GAITASUNAK (proiektuaren bidez garatu nahi direnak)	GELA BARRUKO JARDUERAK (5 ordu astean)	GELAZ KANPOKO JARDUERAK (7,5 ordu astean)	EMATEKOAK
(B) (C) (D)	<p><u>Gelako praktikak</u> (2 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Zalantzak argitzeko eta orientabideak emateko saioa irakaslearen aldetik (60´) ○ Taldean lan egin (60´) <p><u>Talde handian</u> (3 ordu)</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ (DALaren aurkezpenak (60´)) ○ Taldean lan egin (120´) 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Irakurketa indibiduala ○ Informazioa bilatu, jaso, sintetizatu eta azaldu ○ 3. ematekoa bukatu (taldean) 	<p>(Taldearen karpetan sartzeko: - Taldearen biler(ar)en akta(k))</p>

4. BIBLIOGRAFIA

Proiektua garatzeko oinarritzko testuak

1. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA (2009): "1.2. XXI. mendeko gizartea eta hizkuntzak; 1.3. Euskal hezkuntzaren hizkuntzekiko erronka nagusiak; 1.4. Ondorioak: Hizkuntz proiektuaren beharra" atalak. In *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Zamudio-Bizkaia: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 25-37 orr.
2. BILLESKOV, BYRGE, CRYSTAL, AUSTIN, RICHEL (2006): *In languages we live: voices of the world* (bideoa) (interneten)
3. APUNTEAK: Elebitasuna fenomeno sozial gisa
4. SIGUAN (2001): "Estructura y dinámica de las sociedades de lenguas en contacto" kapitulutik "La noción de diglosia" atala. In *Bilingüismo y lenguas en contacto*. Madril: Alianza
5. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA) (2004): "Hizkuntza kalitatearen inguruko datuak eta hausnarketak" atala. In *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. 32-41 orr. (http://www.ehu.es/azpidazki/PDFak/Euskararen_kalitatea.pdf)
6. EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2008): "Euskal Herria. IV. Inkesta Soziolinguistikoa" atala. In *IV: Inkesta Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 197-228 orr. (<http://www.kultura.eiqv.euskadi.net/r46-17893/eu>)
7. BILBAO; X. (1998): "Hezkuntza elebidunaren antolakuntza: programa motak". In *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Gasteiz: UPV-EHU eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Saila. 67-80 orr.
8. BILBAO; X. (1998): "Murgiltze programen antolakuntza". In *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Saila. 81-96 orr.
9. BILBAO; X. (1998): "Hezkuntza elebidunaren onurak eta arriskuak". In *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Saila. 47-66 orr.
10. PASCUAL GRANELL, V. (2006): "Introducció. Una nova situació pel que fa a les llengües. L'educació plurilingüe i pluricultural". In *El tractament de les llengües en un model d'educació plurilingüe per al sistema educatiu valencià*. 9-16 orr.
11. SAGASTA, M.P. (2003): "Gaitasun eleaniztuna eta elebakarra aldegarriak al dira?". In *BAT Soziolinguistika*, 49. Zk., 99-109 orr.
12. CENOZ, J. (2003): "El aprendizaje del inglés desde educación infantil: efectos cognitivos, lingüísticos y efectivos". In *Eduling*, 1.zk., ICE de la Universitat de Barcelona

13. NAVES eta MUÑOZ (2000): *Usar las lenguas extranjeras para aprender y aprender a usar las lenguas extranjeras. Una introducción a AICLE para madres, padres y jóvenes.* (<http://www.cilcompendium.com/3esp.pdf>) (2012ko urtarrilean kontsultatua)
14. PASCUAL GRANELL, V. (2006): "El tractament integrat", In *El tractament de les llengües en un model d'educació plurilingüe per al sistema educatiu valencià*. València: Conselleria de Cultura, Educació i Esport. 79-82 orr.
15. SAGASTA, M.P. eta SAINZ, M. (2006): "Gure ikastetxean hezkuntza-proiektu eleanitza eraiki nahi dugu: lagungarri izan daitezkeen hainbat alderdi". In *Jakingarriak*, 57 zk., 56-61 orr.
16. SERRA , J.M. eta VILA, I. (2009): "Bigarren hizkuntzak eta eskola". In RUIZ BIKANDI, U. (apailatz.)(2009): *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. UPV-EHUko Argitalpen Zerbitzua, 37-45 orr.
17. VILA, I. (2010): "Qué puede aportar la educación bilingüe a la educación lingüística del siglo XXI". In *Avances en supervisión educativa*, 13 zk.
18. BILBAO; X. (1998): "Hezkuntza elebiduna Euskal Herrian", in *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Saila. 48-112 orr.
19. ZALBIDE, M. (2010): "VII.5.2. Aldian behingo ebaluazio-lanen emaitzak: B2" (ikasleen euskara-maila). in *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia. 120-123 orr.
20. BARRIOS, MUÑO, ELORZA, BOAN (2008): "Euskararen kalitatea adituen iritziz" eta "Hizkuntzaren bariazioa et erregistroak". In *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Bilbo: Euskaltzaindia-EHIK. 15-26 orr.
21. ZALBIDE, M. (2010): "Euskararen erabilera indartzea...". In *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia. 63-65 orr.
22. Hizkuntza Marko Hirueleduna. Celaa-ren aurkezpena Parlamentuan (2010)
23. Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn. Jaurlaritzaren aurkezpena (2007), http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1173453041
24. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA: Dekretua, Haur Hezkuntzako Curriculumaz zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza honek ezartzen dituen (testu moldatua), <http://www.isei-ivei.net/eusk/arau/araudia.htm>
25. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA: Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumaz sortu eta ezartzen duena (testu moldatua), <http://www.isei-ivei.net/eusk/arau/araudia.htm>

Bibliografia gehiago

- ARNAU, COMET, SERRA eta VILA (1992): "Educación bilingüe: modelos y principios psicopedagógicos". In *La educación bilingüe*. Bartzelona: ICE Universitat de Barcelona-Horsori. 11-51 orr.
- ARNAU, COMET, SERRA eta VILA (1992): "Características y diseño de los programas de inmersión lingüística" In *La educación bilingüe*. Bartzelona: ICE Universitat de Barcelona-Horsori. 105-135 orr.
- BARRIOS, MUÑOA, ELORZA, BOAN (2008): *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Bilbo: Euskaltzaindia-EHIK.
- BESALU, X. eta VILA, I. (2007): *La buena educación. Libertad e igualdad en la escuela del siglo XXI*. Madril: Catarata-MEC.
- CENOZ, J. (2008): *Towards Multilingual Education*. UK: Multilingual Matters.
- COTS, IBARRARAN, IRUN, LASAGABASTER, LLURDA y SIERRA (2010): "La competencia plurilingüe: aspectos psicolingüísticos y sociológicos". in *Plurilingüismo e interculturalidad en la escuela*. Bartzelona: ICE Universitat de Barcelona-Horsori. 17- 32 orr.
- CUMMINS, J. (2005): "La hipótesis de la interdependencia 25 años después: la investigación actual y sus implicaciones para la educación bilingüe". In LASAGABASTER, D. eta SERRA, J.M. (eds): *Multilingüismo y multiculturalismo en la escuela*. Bartzelona: ICE de la Universitat de Barcelona / Horsori. 113-132 orr
- CUMMINS, J. (2002): *Lenguaje, poder y pedagogía*. Madril: Morata
- ELORZA, BOAN, MUÑOA, URRUZMENDI, BARRIOS, OSA (2009): *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Zamudio-Bizkaia: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
- ELORZA, I. (2006): "Ikastolen "eleanitz" proiektua: euskara ardatzat duen eleanitzasuna", *Jakingarriak* 57, 22-27 orr.
- ETXEBERRIA BALERDI, F.(2001): "Hezkuntza elebidunaren ebaluazioa". In *Elebitasuna eta Hezkuntza Euskararen Herrian*. Donostia: Ibaeta. 225-248
- EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA: Hezkuntza Euskadin. 2008-2010 txostena <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>
- EUROPAKO KONTSEILUA (2001): *Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratua*. <http://www.habe.euskadi.net>
- EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA (2007): "Hizkuntza erduei buruzko Euskadiko Eskola Kontseiluaren akordioa" (<http://www.hezkuntza.eigv.euskadi.net>)
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA (2009): *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Zamudio-Bizkaia: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa.

- EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (XXXX): *Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn. Proposamen berritzailea eta eleanitza XXI. menderako*, <http://www.isei-ivei.net/eusk/sakon/indexsak4.htm>
- EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA: *Ulibarri Programa* (Ikastetxeei beren hizkuntza normalkuntza proiektua garatzen laguntzeko), <http://www.ulibarri.info>
- EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2008): *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-17893/eu>)
- EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2009): *IV. Mapa Soziolinguistikoa* (<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-17893/eu>)
- HUGUET, MADARIAGA (2005): *Fundamentos de educación bilingüe*. Bilbao: SUEPV-EHUAZ
- LUNA, F. (2011): Entrevista a Uri Ruíz Bikandi. In *Cuadernos de Pedagogía*, 400 zk.
- MANTEROLA, BERASATEGI (2011): *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea
- MUÑOZ, C. eta beste batzuk (2003): "En torno a los efectos de la edad en el aprendizaje escolar de una lengua extranjera". In *Eduling*, 1 zk. ICE de la Universitat de Barcelona
- PAVESI, BEROCCHI, HOFMANNOVA, KAZIASKA (2001): *Enseñar en una lengua extranjera. Cómo utilizar las lenguas extranjeras en la enseñanza de una asignatura* (<http://www.ub.edu/filoan/CLIL/profesores.pdf> (2012ko urtarrilean kontsultatua))
- RUIZ BIKANDI (2009): "Hizkuntzaz jabetzea eta elebitasun goiztiarra". In *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 47-68 orr.
- RUIZ BIKANDI (2009): "Bigarren hizkuntzaz jabetzea ". In *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 69-101 orr.
- SIERRA, J. (2008): "Assessment of Bilingual Education in the Basque Country" In *Language, Culture and Curriculum.*, 21/1, 39-47 orr.
- SIGUAN (2001): *Bilingüismo y lenguas en contacto*. Madril: Alianza
- VILA, SIQUES, ROIG (2006): "L'educació bilingüe: una guía per als sistemes educatius", In *Llengua, escola i immigració: un debat obert*, Bartzelona: Graò
- ZALBIDE, M. (2010): *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ZARRAGA, A. eta beste batzuk (2010): Soziolinguistikako eskuliburua. Gasteiz: Soziolinguistikako Klusterra eta Eusko Jaurlaritza

Aldizkariak:

Aula de Innovación Educativa
Cuadernos de Pedagogía
Hik Hasi
Jakingarriak
Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura

Web orrialdeak:

<http://www.ikuspegi-inmigracion.net/eu> :IKUSPEGI (Immigrazioaren Euskal Behatokia)
<http://www.isei.ivei.net> : ISEI-IVEI (Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea)
<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>: EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA
<http://www.soziolinguistika.org> : SOZIOLINGUISTIKAKO KLUSTERRA

ERANSKINAK

E.1. JARDUERAK

Jarduera: Zer dakigu? Zer ikasi behar dugu?
Gaia: Proiektua aurrera eraman ahal izateko dakiguna eta ikasi behar duguna
Helburuak: Jarduera burututakoan gai izango zara esateko proposatu zaizuen lana egiteko dituzuen ezagutzak eta baita ikasi beharko duzuen ere.
Materialak: Posterra egiteko materiala -
Jardueraren deskribapena: Bakarka, saiatuko zara bi galdera horiei erantzuten. Ondoren, lau taldeetan, bakoitzak egindakoari buruz eztabaidatuko duzue. Adosten duzuen poster batean idatziko duzue, ideiak labur eta argi adieraziz (kontuan izan gainontzeko ikaskideek ez dutela ezagutzen zuek izan duzuen eztabaida). Posterrak orman eskegiko dira eta bertan azaldutakoaz eztabaidatuko da talde handian. Eztabaidan, zer dakizuen eta zer ikasi behar duzuen argituko duzue eta arbelean idatziko da. Zerrendak ez dira itxiak izango eta proiektuan zehar eguneratuz joango dira.
Arrakasta irizpidea: Edozein taldekide gai izango da taldean ateratako ondorioak azaltzeko.

Jarduera: Taldearen funtzionamendurako arauak adostu

Helburuak: Lehenagoko talde lanetan izandako zailtasunak kontuan harturik, taldearen funtzionamendurako barne arauak adostea.

Talde lana ez da erraza. Askotan arazoak sortzen dira: taldekide batzuek ez dute kontuan hartzen besteen ekarpenak; hainbat buelta ematen diegu ideia bereberiei eta ez dugu aurrera egiten; taldekide batzuek ez dute ekarpen nahikorik egiten; bilerak berandu hasten ditugu eta ez gara gaien zentratzen; ez diogu bata besteari entzuten; ez ditugu erabakiak modu argian hartzen; ez ditugu ardurak banatzen ...

a. Gogoratu aurreko lau hilabetean edota joan den ikasturtean parte hartu duzun taldeetan izan diren arazoak eta esan, egin behar duzun lan berri honi begira, zeintzuk diren kezka handiena sortzen dizutenak (lehenengo postuan jarri gehien kezkatzen zaituena).

Gutxienez, hiru aipatu.

1.

2.

3.

4.

5.

b. Jarri ados zure taldekideekin, lan berri honi begira, gehien kezkatzen zaituzteten arazo posibleen zerrenda bakarra egiteko, kezka mailaren arabera ordenatuz (lehenengo postuan jarri gehien kezkatzen zaituztena). Gutxienez, hiru aipatu.

1.

2.

3.

4.

5.

c. Taldearen funtzionamendurako arauak adostu zure taldekideekin, arauok aurreko puntuan azaldutako arazoak ekiditeko baliagarriak izan daitezkeen proposamenak ere barne hartzen dituztelarik. Gutxienez, bost zehaztu.

1.

2.

3.

4.

5.

Irakasgaia: Hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan
Proiektua: "Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren zenbait oinarri:
curriculumeko hizkuntzen trataera gure eskolan "

Taldea:

BILERAREN AKTA

DATA:	1. bilera	Hasiera:	Bukaera:
--------------	------------------	-----------------	-----------------

ETORRI DIRA

EZ DIRA ETORRI

BILERAREN GAI ZERRENDA

- 1.**
- 2.**
- 3.**

HITZ EGIN eta ERABAKITAKOAK

- 1.**
- 2.**
- 3.**

EGITEKOAK ETA HAUEN BANAKETA

HURRENGO BILERA

- Noiz**
- Gai zerrenda**

Jarduera: Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren azterketa I (eztabaida zuzendua)

Helburuak: Jarduera burututakoan gai izango zara azaltzeko Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren zenbait alderdi garrantzitsu, ikastetxearen proiektu eleanitza definitzeko kontuan hartu beharko direnak.

Materialak: bi dokumentu

- "Elebitasuna gertaera sozial gisa" (Apunteak)
- "La noción de diglosia" (SIGUANen "Estructura y dinámica de las sociedades de lenguas en contacto" artikulutik hartua)

Jardueraren deskribapena:

1. Lehenengo eta behin, banatu taldekideen artean dokumentuak irakurri ostean erantzun behar diren galderak, kide bakoitza galdera horietako baten ardura hartuko duelarik:

- a) Euskal Herrian hizkuntza ukipena gertatzen da? Eta diglosia? Arrazonatu zure erantzunak. Esan egoera horrek izan ditzakeen ondorioak euskararentzat.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) hizkuntza ukipena gertatzen da? Eta diglosia? Arrazonatu zure erantzunak. Esan egoera horrek izan ditzakeen ondorioak euskararentzat.
- c) Irakurri arretaz "Bizindar etnolinguistikoa" atala eta saiatu aplikatzen hor esaten dena euskararen egoerara.
- d) Esan baieztapena egiazkoa ala gezurrezkoa den eta arrazonatu zure erantzuna: "Euskararen egoera oso ezberdina da lurraldeen arabera: normalizatuta dago ofizialtasuna lortu duen lurraldean -hau da, EAEn-, baina oraindik arriskuan dago Nafarroan eta Iparraldean."

2. Irakurri dokumentu biak, eta, gero, idatzi dagokizun galderaren erantzuna ahalik eta zehatzen eta argien. Zalantzak sortzen bazaizkizu, idatzi ere.

3. Ikasgelan, eta horretarako zehaztuko den denboran, galdera bera erantzun duten beste taldeetako kideekin elkartuko zara. Erantzunak komentatuko eta lana egiterakoan sortu zaizkizuen zalantzak argituko dituzue.

4. Zure taldekideei azalduko diezu, ahalik eta argien, landu duzun galdera. Eta azpimarratuko duzu proiekturako interesgarria iruditu zaizuna.

Jarduera: Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren azterketa II (puzlea)

Helburuak: Jarduera burututakoan gai izango zara azaltzeko Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren zenbait alderdi garrantzitsu, ikastetxearen proiektu eleanitza definitzeko kontuan hartu beharko direnak.

Materialak:

Oinarritzko testuak:

- EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2008): "Euskal Herria. IV. Inkesta Soziolinguistikoa" atala, IV. Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 197-228 orr. (<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-17893/eu>). (**Oharra:** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak berak lapurpen bat argitaratu du: "Euskal Herria. 2006ko egoera soziolinguistikoa" (<http://www.berria.info/dokumentuak/dokumentua403.pdf>))
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA) (2004): "Hizkuntza kalitatearen inguruko datuak eta hausnarketak" atala in Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako", 32-41 orr. (http://www.ehu.es/azpidazki/PDFak/Euskararen_kalitatea.pdf)

Gehiago jakiteko:

- EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2008): IV. Inkesta Soziolinguistikoa (<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-17893/eu>)
- EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2009): IV. Mapa Soziolinguistikoa (<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-17893/eu>)
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, <http://www.soziolinguistika.org>
- ...

Jardueraren deskribapena:

1. Ondoren zehazten diren gaiak taldekideen artean banatu: euskararen ezagutza, euskararen familia bidezko transmisioa, euskararen erabilera, euskararekiko motibazioa eta jarrerak. Zu horietako bat lantzeaz arduratuko zara.

2. Irakurri testuak* etxean eta arduratu zaren gaiari buruzko informazioa jaso (aurrerago duzun eskema jarraitu). Informazioa lortzeaz gain, idatzi zure gaiaren inguruan sortu zaizkizun galderak eta azpimarratu proiekturako interesgarria izan daitekeena.

a) Euskararen ezagutza:

- 16 urte edo gehiagoko biztanleen hizkuntza-gaitasuna EHn eta lurraldez lurralde
- euskal hiztunen ezaugarriak: elebidun motak
- euskal hiztunen banaketa lurraldean zehar (bilduta/sakabanatuta, herri txikietan/hirian,...)
- besterik?

b) Euskararen familia bidezko transmisioaren ezaugarriak:

- EHko biztanleen lehen hizkuntza
- euskararen familia bidezko transmisioa gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera
- besterik?

c) Euskararen erabilera:

- euskararen erabilera handitzen ala txikitzen ari da (EHn eta lurralde bakoitzean)?
- dakitenek egiten dute?, badago alderik ezagutzaren eta erabileraren artean?
- erabilera esparruei edo eremuei begiratuta, zer esan daiteke?
- erabilera baldintzatzen duten faktoreak
- besterik?

d) Euskararekiko motibazioa eta jarrerak:

- EHko biztanleak euskararen erabilera normalizatzeko neurriak hartzearen alde ala aurka daude? Aldatu egiten da jarrera hori lurraldeen arabera?
- balio komunikatibo berbera ematen zaie erdareei eta euskarari?
- besterik?

3. Ikasgelan, eta horretarako zehaztuko den denboran, gai bera aukeratu duten beste taldeetako kideekin elkartuko zara eta lana egiterakoan sortu zaizkizun zalantzak argitzen saiatuko zara. Eta azpimarratuko duzue proiekturako interesgarria iruditzen zaizuen.

4. Zure taldekideei azalduko diezu, ahalik eta argien, landu duzun gaia.

*Kasuren batean bibliografia gehiago kontsultatu beharra ikusten baduzu, beste dokumentu batzuk erabili ditzakezu ere.

Jarduera: Eskolaren eginkizuna eta mugak euskararen biziberritze prozesuan (eztabaida zuzendua)

Gaia: Eskolaren eginkizuna eta mugak hizkuntzen biziberritze prozesuetan

Helburuak: Jarduera burututakoan gai izango zara azaltzeko eskolak zer egin dezakeen eta zer ez euskararen biziberritze prozesuan eta, orokorrean, edozein hizkuntzaren normalizazioan

Materialak: Adituen iritziak jasotzen dituzten testu laburrak

Jardueraren deskribapena:

1. Etxean ondoko galderari erantzungo diozu bakarka:

Gero eta haur eta gazte gehiagok ikasten dute euskaraz. Ziurtatuko du fenomeno horrek euskararen etorkizuna? Zergatik? Zer egin dezake eskolak eta zer ez?.

2. Ondoren, ikasgelan, eskolaren eginkizunaz zenbait adituk duen iritzia jasotzen duten testu labur batzuk banatuko dira ikasleen artean (testu bana), ahopeka irakurtzeko. Zuk bat irakurriko duzu. (10´)
3. Jarraian, zure taldekideekin elkartuko zara eta idatzitakoaz eta irakurritakoaz eztabaidatuko duzue. Eztabaida bukatuta, saiatu ideia batzuk adosten aurrerago agertzen den koadroa osatzeko (*Euskararen biziberritze prozesuan eskolak egin dezakeena eta eskolaren mugak*). Gutxienez hiru ideia jarri atal bakoitzean. Ideiak labur eta argi idatzi. Punturen batean ezadostasun handiak badaude, zehaztu. (15´)
4. Azkenik, talde handian eztabaidatuko da. (15´)

Arrakasta irizpidea: Edozein taldekide gai izango da azaltzeko taldeak koadroan idatzi duena

Euskararen biziberritze prozesuan...	
zer egin dezake eskolak?	zer ezin du egin eskolak?

Jarduera: Hezkuntza programa elebidunak eta hizkuntza ereduak (puzlea eta eztabaida zuzendua)

Gaia: Hezkuntza elebiduna: definizioa eta tipologia. Hezkuntza elebiduna EAEko eskoletan: hizkuntz ereduak.

Helburuak: Jarduera burututakoan gai izango zara azaltzeko zer den hezkuntza elebiduna eta baita murgiltze, mantentze eta azpiratze (edo submentsio) programen ezaugarri nagusiak ere. Halaber, gai izango zara azaltzeko nola dagoen antolatuta hezkuntza elebiduna EAEko eskoletan (hizkuntza ereduak).

Materialak: Hezkuntza programa elebidunei buruzko testu batzuk eta bete beharreko fitxa bat

Jardueraren deskribapena:

- Dokumentuak taldekideen artean banatuko dituzue. Kide bakoitzak bere dokumentuan azaltzen den informazioa ikasiko du.
- Ondoren, eta puzzle teknika erabiliz, dokumentu berdina landu dutenek elkartu eta sortu zaizkien zalantzak argituko dituzte, jarraian jatorrizko taldeetan azalpenak emateko.
- Jatorrizko taldean bilduta, eta denen azalpenak entzun eta gero, esan beharko duzue programa elebidunen tipologia nola islatzen den EAEko hizkuntz ereduetan. Horretarako hurrengo orrian, zeinetan hizkuntza eredu ezaugarriak agertzen diren, esan beharko duzue hizkuntza eredu bakoitza zein programa elebidun mota den.
- Azkenik, talde handian eztabaidatuko dugu.

Arrakasta irizpidea: Edozein taldekide gai izango da azaltzeko zer den hezkuntza elebiduna, zeintzuk diren programa elebidun nagusien ezaugarriak, zeintzuk diren EAEko hizkuntza eredu ezaugarriak eta esateko hizkuntza ereduak ze programa elebidun mota diren.

HIZKUNTZA EREDUAK	PROGRAMA ELEBIDUN MOTA
<p>A eredia: Irakasgai guztiak gaztelaniaz irakasten dira funtsean, euskara bera izan ezik. Euskara ikasgai modura ematen da, beste edozein gai bezala.</p>	
<p>B eredia: Bai euskara bai gaztelania erabiltzen dira eskolako irakasgaiak lantzeko. Printzipioz, banaketa honakoa da: gaztelaniaz irakasten dira irakurketa-idazketa eta matematika bezalakoak; euskaraz, berriz, esperientziak, plastika eta dinamika bezalakoak. Euskara eta gaztelania, horretaz gain, irakasgai modura lantzen dira.</p>	
<p>D eredia: Irakasgai guztiak euskaraz irakasten dira funtsean, gaztelania izan ezik. Gaztelania irakasgai modura ematen da, beste edozein gai bezala. Euskara bera ere ikasgai bat da.</p>	

Bilbao,X. (1998): Hezkuntza elebiduna.Zenbait oinarri, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia eta UPV-EHU,102-103orr.

Jarduera: Murgiltzearen ezaugarriak eta baldintzak (eztabaida zuzendua)

Gaia: Hizkuntz murgiltze programen ezaugarriak eta baldintzak

Helburuak: Jarduera hau bukatu ondoren gai izango zara murgiltzearen oinarritzko ezaugarriak eta baldintzak azaltzeko, eta ezaugarri horiek zure esperientzian eta gaur eskoletan dituzten presentzia zenbaterainokoa den esateko.

Materialak

- BILBAO, X. (1992): "Murgiltze programen antolakuntza" kapitulutik 5.2.6. atala, in Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri.
- Dokumentu bat zeinetan, era laburrean, hizkuntz murgiltze programen ezaugarriak eta baldintzak azaltzen diren (ikus ikasleen fitxan).

Taldekode bakoitzak material horren kopia bat izango du.

Jardueraren deskribapena:

1. Etxean Xabier Bilbaoren testua arretaz irakurri eta zalantzak idatzi
2. Ikasgelan, talde txikian, azaldu oso modu labur eta argian murgiltze programetan erabiltzen den metodologia hizkuntza irakasteko.
3. Irakurri bakarka murgiltze programen ezaugarriak eta baldintzak. Ondoren, irakurri arreta handiagoz 3, 4 eta 5 puntuak eta talde txikian eztabaidatu zuen esperientzian zein neurritan bete diren eta baita gaur egungo ikasgeletan zein neurritan betetzen diren ere.
4. Ikastaldeak antolatzeko irizpide linguistikoak: ume euskaldunak eta erdaldunak gela berean ala bananduta?

Egoera: Gure eskoletan askotan gertatzen da Haur Hezkuntzan matrikulatzen diren ume guztien etxeko hizkuntza bera ez izatea: ume batzuen etxeko hizkuntza euskara da; beste batzuen, erdara. Errealitate honen aurrean eta talde homogeneoak eratzeko aukera dagoenean, eskolek erabaki behar izaten dute nola jokatu, irtenbide ezberdinak proposatzen direlarik.

Eztabaidatu talde txikian umeak ama-hizkuntzaren arabera banatzeko aldeko eta kontrako argudioak.

5. Alderatu etxetik eskolara hizkuntza aldaketa inplikatzeko duten programa biak: murgiltzea eta azpiratzea edo azpimurgiltzea

MURGILTZEA	AZPIRATZEA EDO AZPIMURGILTZEA

Arrakasta irizpidea: Edozein taldekide gai izango da azaltzeko murgiltzearen oinarritzko baldintzak eta baldintza horien baldintza horien betetze maila zuen eskola esperientzian eta gaur eguneko ikasgeletan.

MURGILTZE PROGRAMEN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK

1. Murgiltze-programa 2Hn irakasteko pedagogia-eredu bat da, egoera soziolinguistiko jakin bat eta hizkuntza-helburu jakin bat dituzten **HIZKUNTZA ETA KULTURA NAGUSIKO IKASLEEI ZUZENDUA**. Helburu jakin hori komunikazio-gaitasuna bi hizkuntzetan eskuratzea da, bietako batean ikasteak bestean komunikazio-gaitasuna galtzea ekarri gabe.
2. **HIZKUNTZA IRAKASTEKO IKUSPEGI INSTRUMENTALA edo KOMUNIKAZIOAN OINARRITUTAKO IRAKASKUNTZA**. Murgiltze programek "hizkuntza bat ikasteko modurik eraginkorrena **hizkuntza horren bidez gauzak egitea** dela jotzen dute; horregatik, programa horietan, ikasgelan gauzatzen diren irakasteko eta ikasteko jardueren bide izaten da hizkuntza hasieratik. Hori dela eta, murgiltze-programek ikuspegi komunikatibotik ekiten diote hizkuntzaz jabetzeari, hau da, gelan helduaren eta haurraren artean gertatzen diren eragin-trukeen **esanahien eta edukien negoziazioa** da nagusi. Ahozkoa ulertzeari eta, ondoren, mintzatzeari eskaintzen dizkiete irakasle tutoreek ahalegin handienak lehen ikasturteetan. Hori guztia jarduera ludiko eta oso motibagarrien bitartez egiten da, hizkuntza oso testuinguru argian erabiliz...
Esan bezala, "irakasleek **hizkuntzaren ulermenean** zentratzen dituzte beren ahalegin didaktikoak, eta aldi berean ikasleei pixkanaka bigarren hizkuntza (2H) menderatzeko bidea ematen dieten **erabilera-testuinguruak sortzen** dituzte. Praktika horrek berekin du ikaslea 2Hn mintzatzera ez behartzea; aitzitik, aukera ematen zaio hizkuntza-trukeetan hizkuntza bat edo bestea erabil dezan. Espero izatekoa denez, hasieran 1Hn mintzatu ohi da. Bi dira hezkuntza-praktika hori aholkatzen duten arrazoiak: lehena, adierazi aurretik ulertu behar dela beti; eta bigarrena, nekez bultza daitezkeela aldeko jarrerak eskolako hizkuntzari buruz, hezkuntza-praktikan ikasleen beren hizkuntza ukatzen bada." (Serra eta Vila, 30-31 orr.)
3. **BORONDATEZKO ESKOLATZEA**. "Murgiltze programa baten jokabide eta helburuek -irakaskuntzan bigarren hizkuntza bat erabiltzea, haurrak elebidun orekatu bihurtzea- ezinbestekoa bihurtzen dute ikasleek jokabide horien aldeko jarrera izatea. Ikasleek berek eskolako hizkuntzari eta eskolako prozedurei balioa ematen ez badiete eta bertako jardueretan parte hartzeko motibaturik ez badaude, alferrikakoak izango dira antolatzaile eta irakasleen ahaleginak. Haurrengan aldeko jarera hori lortzeko gakoa gurasoen jarrera da: (...) garrantzi handia du, murgiltze programa baten helburuak erdiesteko orduan, haurrak ez ezik gurasoak ere programaren jokabideekin eta helburuekin bat etortzea. Gurasoek gauza aberasgarritzat hartu behar dute beren seme-alabek bigarren hizkuntza hori ikastea, eta helburu hori lortzeko bide egokitzat hartu behar dute hezkuntza bigarren hizkuntza horretan egitea." (X. Bilbao, 86-87 orr.)
4. **IRAKASLE ELEBIDUNAK**. "Irakasle horiek ikasleen hizkuntza ezagutzea eta horretan gai izatea da modu bakarra ikasgelan irakasleen eta ikasleen arteko komunikazioa lehen egunetik gerta dadin, eta inoiz ez dadin eten. Bestalde, planteamendu horrek begirune handia erakusten dio ikaslearen hizkuntzari"(Serra eta Vila, 31 or.). Eskolan eta ikasgelan onartu egiten da ikasleen 1H, balioa ematen zaio; eta, horrela izateak, lagunduko du eskolatzearen hasieran familiei esker ikasleen aldetik zegoen bi hizkuntzekiko

jarrera positiboak mantentzen eta garatzen programatik bertatik.
"Beste alde batetik, guraso eta ikasleen motibazio egokia eta aldeko jarrera behar diren bezalaxe, eskolako irakasleek ere bat etorri behar dute programaren helburuekin... (...) Areago esan daiteke irakasleen betebeharez, programa antolatzeke nahia eta motibazioa ez baitira nahikoa haien kasuan: era horretako programa bat gauzatzeko gaitasuna behar dute izan irakasleek, bai ikuspegi metodologikotik eta bai hizkuntzen ezagutzaren aldetik." (X. Bilbao, 87-88 orr.)

5. HOMEGENEITATE LINGUISTIKOA IKASLEEN ALDETIK. Murgiltze programetan hizkuntza irakaskuntza antolatzeke abiapunturik egokiena haurrek eskolako hizkuntza ez jakitea, edo behintzat, hizkuntza horretan antzeko maila edukitzea izango litzateke. "En la inmersión lingüística, el profesorado sabe que su alumnado desconoce inicialmente la lengua que utiliza y, sabe que, más adelante, su uso es limitado y que avanza mediante el trabajo escolar. Por eso, inconscientemente, adapta permanentemente su lenguaje a las capacidades que presupone en el alumnado. Es decir, el profesorado hace exactamente lo mismo que hacen las madres y padres con sus criaturas a lo largo de la vida. Pero si el profesorado se encuentra delante de un grupo de alumnos y alumnas entre los cuales hay una parte que no entienden la lengua de la escuela y otra parte que utiliza su misma lengua, ¿a quién habla el profesorado? ¿A quién se dirige? ¿Cómo enfatiza y regula los procesos de comprensión? Ciertamente, complicado. Por eso, la inmersión lingüística ha reivindicado la presencia de alumnado lingüísticamente homogéneo sobre la base de su desconocimiento de la lengua de la escuela" (Vila, Siqués eta Roig, 82 or.)

6. LEHEN HIZKUNTZAREN TRATAMENDUA. Eskolak ziurtatu behar du hizkuntzaren erabilera formalak lehen hizkuntzan ere lantzen direla. Hala ere, lehen hizkuntzari emango dion tratamenduak tokian tokiko baldintzen araberakoa izango da.

"Hala ere, ikasleak etxetik eskolara hizkuntza aldatzen duen programa batean eskolatzeak ez ditu beti izaten hizkuntzan murgiltzearen ezaugarriak. Egoera hau adibide: hizkuntza apatxea duten ikasleak, Mexiko Berriko estatuan bizi direnak, ingelesa nagusi den populazioetan bizi direnak. Mexiko Berrian, ikasle horiek ez dute hizkuntza horretan eskolatzeke aukerarik. Hain zuzen, ingelesez eskolatzeke behartuta daude, etxeko hizkuntza ingelesa duten hurrekin batera. Gainera, eskoletako irakasleek ez dakite apatzez. Haur apatxe bat eskolatzen denean, badu solas-trebetasunik ingelesez; izan ere, esan bezala, ingelesa da gizarte-harremanetan hizkuntza nagusia. Baina, segur asko, solas-trebetasun horiek ez dira etxeko hizkuntza ingelesa duen haurraren mailakoak. Hala eta guztiz ere, eskolan jotzen da biek dakitela ingelesez eta, beraz, desagertu egiten da apatzez mintzatzen diren ikasleek hizkuntza-laguntza izateke aukera. Gainera, hizkuntza-jarrerei dagokienez, ikasle ingelesdunek ez bezala, ikasle apatxeek nekez ikusiko dute beren hizkuntza eskolan aintzat hartzen denik; izan ere, irakasleek ez baitakite apatzez eta, gainera, hezkuntza-egitasmoan eta curriculumean ez da aintzat hartzen ez haren presentzia ez garapena. (...) ondorioz, ikasle apatxeak arrisku-egoeran egon daitezke, ez baitute garatzen -edo oso era mugatuan garatzen dute- ez ingelesaren ezagutza, ez beren hizkuntza. Historikoki, horrelako programei **hizkuntza azpimurgiltzea** deitu izan zaie, hizkuntzan murgiltzeke programetatik bereizteke." (Serra eta Vila, 31 orr.)

BILBAO; X. (1992): "Murgiltze programen antolakuntza", in *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*.

SERRA eta VILA (2009): "Bigarren hizkuntzak eta eskola", in RUIZ BIKANDI: *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntza*

VILA, SIQUES eta ROIG (2006): "L'educació bilingüe: una guía per als sistemes educatius", in *Llengua, escola i immigració: un debat obert*

Jarduera: Hezkuntza elebidunaren emaitzak ulertu

Helburuak: Jarduera burututakoan ikasleak gai izango zara hezkuntza elebidunaren eta gure eskoletako hizkuntz ereduen emaitzak azaltzeko, horretarako hezkuntza elebiduna gidatzen duten oinarritzko ideiak erabiliz.

Materialak:

- BILBAO, X. (1998): *Hezkuntza Elebiduna. Zenbait oinarri*, 3. eta 5. Kapitulua
- VILA, I., SIQUES, C. eta ROIG, T. (2006): "L'educació bilingüe: una guia per als sistemes educatius", in *Llengua, escola i immigració: un debat obert*, Graò, Bartzelona (hautazkoa)

Jardueraren deskribapena:

1. Taldekide bakoitzak ondoren zehazten diren gaietatik bat aukeratu eta landuko du:
 1. Elebitasun gehitzailea eta kentzailea (Lambert)
 2. Elkarmenpekotasunaren teoria (Cummins)
 3. Harremanetarako hizkuntza eta hizkuntza akademikoa (Cummins)
 4. Atalasearen teoria (Cummins; Toukoomaa eta Skutnabb-Kangas)
2. Ondoren, gai bera prestatu duzuenak bilduko zarete eta testua irakurtzerakoan sortu zaizkizuen zalantzak argitzen saiatuko zarete.
3. Hurrengo pausoa, taldekide bakoitza jatorrizko taldearen aurrean landu duen gaia aurkeztu eta azaltzea izango da.
4. Azkenik, jarraian egiten den galderari erantzun diozue taldean:
 - Ikerketen emaitzen arabera, ikasketak euskaraz jarraitzen dituzten ume gaztelaniadunek gaztelania A ereduaren ikasketen emaitza ume gaztelaniadunen antzera garatzen dute, nahiz eta A ereduaren ikasleek gaztelaniari askoz denbora gehiago eskaini. Nola izan daiteke hori? Azaldu emaitza horiek hezkuntza elebidunaren inguruan egin diren ikerketetan eta adituek eman dituzten azalpenetan oinarrituz.

Jarduera: Taldearen funtzionamenduari buruzko hausnarketa (galdeketa)

Taldeak arrakastaz burutu nahi badu proiektua, ezinbestekoa da talde kooperatibo gisa ondo funtzionatzea (taldekide guztiek laguntzen dute zeregina aurrera eramaten eta taldearen arrakastarekin eta kide guztien ikaskuntzarekin konprometitzen dira); horregatik, garrantzitsua izango da zailtasunak eta gatazkak garaiz detektatu eta arazoaren irtenbideak bilatzea. Galdeketa honek horretan lagundu nahi du.

Galdeketa taldearen lan saio batean egingo da taldekide guztiak presente daudenean. Galderak lasaitasunez eztabaidatuko dira eta kideen arteko adostasuna lortzen denean erantzungo dira; kontsentsurik lortuko ez balitz, esplizitoki adierazi beharko da "adostasunik ez" idatziz.

Taldearen izena:

Kide guztiak daude bileran?:

Hurrengo galdera erantzun:

1. Esan zein neurritan lortzen ari den taldearen eraketan adostutako funtzionamendurako arau bakoitza eta komentatu:

1.araua:

1 (ez da betetzen)	2	3	4	5 (betetzen da)
-----------------------	---	---	---	--------------------

2.araua:

1 (ez da betetzen)	2	3	4	5 (betetzen da)
-----------------------	---	---	---	--------------------

3.araua:

1 (ez da betetzen)	2	3	4	5 (betetzen da)
-----------------------	---	---	---	--------------------

4.araua:

1 (ez da betetzen)	2	3	4	5 (betetzen da)
-----------------------	---	---	---	--------------------

5.araua:

1 (ez da betetzen)	2	3	4	5 (betetzen da)
-----------------------	---	---	---	--------------------

Komentatu ondorengo baieztapenetatik aurreko puntuan tratatu ez direnak:

2. Taldekide guztiak joaten dira bileretara eta ordutegia errespetatzen dute (pertsionalizatu gabe)
3. Taldekide guztiak besteei begirunea erakusten diete, eta arretaz entzuten dute berba egiten dutenean edo iritzia ematen dutenean
4. Taldearen bilera bakoitzean egin beharrekoaz eztabaidatu eta zereginak adosten dira
5. Lanaren banaketa zuzena eta adostua egiten da
6. Taldekide bakoitzak aski azalpen ematen die gainontzekoei berak egindako bakarkako lanaz
7. Taldekide guztiak aktiboki parte hartzen dute eta ekarpenak egiten dituzte proiektuan arrakasta lortzeko

Hurrengo galderak erantzun:

8. Aipatu zuen taldearen funtzionamenduaren hiru alderdi positibo
9. Aipatu taldearen funtzionamenduan hobetu daitezkeen bi alderdi
10. Baloratu, 0-tik 10-era, taldearen funtzionamendua (iritzi indibidualak, izena aipatu gabe)
a) b) c) d)
11. Baloratu, 0-tik 10-era, bakoitzak egiten duen ekarpena taldearen funtzionamendura (iritzi indibidualak, izena aipatu gabe eta aurreko galderaren orden berean)
a) b) c) d)
12. Zehaztu gehienez hiru ekintza taldearen funtzionamendua hobetzeko. Eta, beharrezkoa balitz, barne funtzionamenduaren arauen bertsio berri bat egin alderdi horiek islatuta gera daitezten

Beste komentariorik:

Jarduera: Ingelesaren sarrera goiztiarra, aldeko eta kontrako argudioak (posterra)

Helburuak: Jarduera burututakoan, gai izango zara ingelesaren sarrera goiztiarraren aldeko eta kontrako argudioak emateko, gaiaren inguruan egin diren ikerketetan eta adituen azalpenetan oinarrituz. Eta baita ingelesaren sarrera goiztiarrean kontuan hartzeko baldintzak ere.

Materialak: Gaiaren inguruko bi artikulua:

- CENOZ, J. (2003): "El aprendizaje del inglés desde educación infantil: efectos cognitivos, lingüísticos y afectivos". In *Eduling*, 1. zk., ICE de la Universitat de Barcelona
- LUNA, F. (2011): Entrevista a Uri Ruíz Bikandi, *Cuadernos de Pedagogía*, 400 zk., 40-45 orr.

Jardueraren deskribapena:

1. CENOZen artikulua lantzeko testua hiru partetan zatituko dugu:
 - a) Contexto europeo / Enseñanza del inglés desde educación infantil y desarrollo cognitivo y lingüístico
 - b) La enseñanza del inglés desde educación infantil y la competencia en inglés / La enseñanza del inglés desde educación infantil y las actitudes
 - c) Conclusiones
2. Taldekide bakoitza testuaren parte bat lantzeaz arduratuko da. Testua arretaz irakurri ostean, testuan agertzen diren ingelesaren sarrera goiztiarraren aldeko eta kontrako argudioak idatziko ditu eta baita ingelesaren sarrera goiztiarrean kontuan hartu beharrekoak ere. (ikus atzean)
3. Ondoren, eta puzzle teknika erabiliz, dokumentu berdina landu dutenek elkartu eta egindakoa komentatuko dute sortu zaizkien zalantzak argituz.
4. Jatorrizko taldean bilduta, eta denen ekarpenak entzun eta gero, taldekideek fitxa bakarra osatuko dute, ingelesaren sarrera goiztiarraren aldeko eta kontrako argudio guztiak idatziz eta baita ingelesaren sarrera goiztiarrean kontuan hartu beharreko guztiak zehaztuz.
5. Taldekide bakoitzak URI RUIZ BIKANDIri egindako elkarrizketa irakurriko du. Eta elkarrizketan ingelesaren sarreraren goiztiarraren aldeko edo kontrako argudio berriak azaltzen badira, apuntatuko ditu.
6. Jatorrizko taldean bilduta, eta denen ekarpenak entzun eta gero, taldeak fitxa osatuko du.
7. Taldeek egindako lana talde handian komentatuko da .

Ingelesaren sarrera goiztiarra

ALDEKO ARGUDIOAK	KONTRAKO ARGUDIOAK
KONTUAN HARTZEKO BESTE ALDERDI BATZUK ETA BALDINTZAK	

Jarduera: Talde lanaren azken balorazioa (galdeketa)

Behin proiektua bukatu, garrantzitsua da talde lanaren balorazioa egitea, alderdi positiboak azpimarratu eta hurrengo batean hobetu beharko liratekeenak identifikatzeko. Horrela, hausnarketa jardura hauen bidez, lortuko dugu pertsonarteko eta talde lanean aritzeko trebetasunak garatzea.

Galdeketa taldearen lan saio batean egingo da taldekide guztiak presente daudenean. Galderak lasaitasunez eztabaidatuko dira eta kideen arteko adostasuna lortzen denean erantzungo dira; kontsentsurik lortuko ez balitz, esplizitoki adierazi beharko da "adostasunik ez" idatziz.

Taldearen izena:

Kide guztiak daude bileran?:

Hurrengo galdera erantzun:

1. Esan zein neurritan lortu den taldearen eraketan adostutako funtzionamendurako arau bakoitza eta komentatu:

1. araua:

1 (ez da bete)	2	3	4	5 (bete da)
-------------------	---	---	---	----------------

2. araua:

1 (ez da bete)	2	3	4	5 (bete da)
-------------------	---	---	---	----------------

3. araua:

1 (ez da bete)	2	3	4	5 (bete da)
-------------------	---	---	---	----------------

4. araua:

1 (ez da bete)	2	3	4	5 (bete da)
-------------------	---	---	---	----------------

5. araua:

1 (ez da bete)	2	3	4	5 (bete da)
-------------------	---	---	---	----------------

Komentatu ondorengo baieztapenetatik aurreko puntuan tratatu ez direnak:

2. Taldekide guztiak joan dira bileretara eta ordutegia errespetatu dute (pertsonalizatu gabe)
3. Taldekide guztiek besteei begirunea erakutsi diete, eta arretaz entzun dituzte besteen ekarpenak
4. Taldearen bilera bakoitzean egin beharrekoaz eztabaidatu eta zereginak adostu dira
5. Lanaren banaketa zuzena eta adostua egin da
6. Taldekide bakoitzak aski azalpen eman die gainontzekoei berak egindako bakarkako lanaz
7. Taldekide guztiek aktiboki parte hartu dute eta ekarpenak egin dituzte proiektuan arrakasta lortzeko

Hurrengo galderak erantzun:

8. Aipatu zuen taldearen funtzionamenduan izan diren hiru alderdi positibo
9. Aipatu taldearen funtzionamenduan hobetu beharko zenituzkeen bi alderdi berriro elkarrekin lanean aritu beharko bazenute
10. Baloratu, 0-tik 10-era, taldearen funtzionamendua (iritzi indibidualak, izena aipatu gabe)
a) b) c) d)
11. Baloratu, 0-tik 10-era, bakoitzak egin duen ekarpena taldearen funtzionamendura (iritzi indibidualak, izena aipatu gabe eta aurreko galderaren orden berean)
a) b) c) d)
12. Aipatu taldekide bakoitzak hobetu beharko lukeen alderdi bat berriro elkarrekin lanean aritu beharko bazenute
a)
b)
c)
d)

Beste komentariorik:

E.2. EMATEKOAK

1. ematekoa

(Eskolaren eta haren inguruaren ezaugarri soziolinguistikoak)

Helburua: Eskolaren eta ikastetxearen inguruaren errealitate soziolinguistikoa deskribatzea. Hezkuntza eleaniztuna bermatzeko, ezinbestekoa da eskolaren ezaugarriak eta testuinguru kontuan izatea. Eskola eta testuinguru jakin baterako balio duen proposamena ezin da, beste barik, beste eskola eta testuinguru batzuetara estrapolatu.

Garatzeko alderdiak:

a) Ikastetxeari buruzko datuak: Ikastetxearen izena, izaera legala, hezkuntza mailak, kokapen geografikoa.

b) Eskolaren inguru soziolinguistikoari dagokionean: euskararen ezagutza, erabilera (kalean, aisialdian -kultur eta kirol ekintzetan, ...) eta motibazioa (biztanleen jarrerak, euskararen aldeko ekimenak, ...) hirian/herrian; herri euskaldunetan, tokian tokiko euskara. Interesgarriak izan daitezkeen beste puntu batzuk.

c) Ikastetxearen ezaugarri soziolinguistikoak: Hizkuntza eredu(k) -eta, hala badagokio, eskolaren historian gertatu diren aldaketa garrantzitsuak hizkuntzari lotuak-. Hartzen dituen ikasleen ezaugarri orokorrak (jatorri sozio-ekonomiko-kultural-linguistikoa): ikasleen eta haien familien egoera sozio-ekonomikoa, haien hizkuntza eta kultura, euskararen ezagutza eta euskararekiko duten motibazioa eta konpromisoa. Langileen (irakasleak eta irakasleak ez direnak) euskara ezagutza, erabilera eta euskararekiko motibazioa. Ikastetxearen barne-funtzionamendurako hizkuntza. Interesgarriak izan daitezkeen beste puntu batzuk.

Ebaluazio-irizpideak: Ikus ebaluaziorako errubrika eranskinetan.

Entregatzeko data:

2. ematekoa

(Hizkuntza ofizialak ikastetxean: kontuan izateko alderdiak edota irizpideak eta horien justifikazio teorikoa)

Helburua: Eskolako ikasleek komunikazio-konpetentziak bi hizkuntza ofizialetan garatuko dituztela ziurtatzeko, kontuan hartu behar diren alderdiak edota irizpideak zehaztea eta teorikoki justifikatzea.

Edukia aurkezteko bi dokumentu ezberdinen erabiliko dira: Oinarrizko Dokumentua (agiri honetan jasoko dira ikastetxean hizkuntza ofizialei eman beharreko trataeraren eta erabileraren inguruko puntu nagusiak, modu labur eta argian) eta Justifikazio Dokumentua (agiri honetan jasoko dira aurrekoan zehaztu diren puntuen justifikazio teorikoa)

Garatzeko alderdiak: Egin diren ikerketak eta adituen iritzia oinarri hartuta, eskolako ikasleek bi hizkuntzetan hizkuntza helburuak lortuko dituztela ziurtatzeko, kontuan izateko alderdiak edota irizpideak.

Kontuan izateko alderdiak edota irizpideak: Adibidez,

- Lortu nahi diren helburu linguistikoak
- Eskolako hizkuntza nagusia zein
- Umeak taldekatzeko irizpide linguistikoak
- Euskararen eta gaztelaniaren trataera ikasgelan; adibidez:
 - Hizkuntza bakoitza ikasgai huts gisa edota edukiak bideratzeko erabiliko den
 - Hizkuntza bakoitzaren sarrerako unea
 - Hizkuntza bakoitza curriculumean izango duen presentzia
 - Euskara eta gaztelania lantzeko oinarrizko metodologia irizpideak
- ...
- Hizkuntzen trataera gelaz kanpo (eskolaren funtzionamenduan, ikasgelaz eta eskolaz kanpoko ekintzetan, ...). Euskararen erabilera indartzeko neurriak.
- Hizkuntza-aldaeren trataera euskararen kasuan:
- Euskararen erabilera informala gelaz kanpo ingurune erdaldunetan
- Batuaren, euskalkiaren eta tokian tokiko hizkera ingurune euskaldunetan
-

Proposamenaren justifikazio teorikoa.

Ebaluazio-irizpideak: Ikus ebaluaziorako errubrika eranskinetan.

Entregatzeko data:

3. ematekoa

(Posterra: Hezkuntza eleaniztunerako proposamena)

Helburua: Umeek bi hizkuntza ofizialetan eta ingelesean komunikazio-konpetentzia lortze aldera adituek egiten dituzten ekarpenak ezagututa, eskola jakin baterako hezkuntza eleaniztunerako proposamena idatziko duzue poster batean. Posterrak lagunduko dizue azken dokumentuan azaldu beharko duzuen zehazten; gainera, taldeen arteko kooperazio lana posterren balorazioetan ahalbidetuko du zuen azken dokumentuan hobekuntzak egiten, eta, bide batez, denen proposamenak publiko egiteko aukera eskainiko du poster saioak.

Garatzeko alderdiak: Egin diren ikerketak eta adituen iritzia oinarri hartuta, eskolako ikasleek, hizkuntza ofizialez gain, atzerriko hizkuntzan helburuak lortzeko dituztela ziurtatzeko, kontuan izateko alderdiak edota irizpideak, hala nola:

Kontuan izateko alderdiak edota irizpideak: Adibidez,

- Lortu nahi diren helburuak hizkuntza arloan
- Eskolako hizkuntza nagusia zein
- Umeak taldekatzeko irizpide linguistikoak
- Hizkuntzen trataera ikasgelan
 - Euskara
 - Gaztelania
 - Ingelesa
 - Irizpide edo printzipio orokorrak (hizkuntza guztietarako balio dutenak)
- Hizkuntzen trataera gelaz kanpo
- Besterik

Kontuan izan proposamen horiek egiteko argudioak.

Ebaluazio-irizpideak: Ikus ebaluaziorako txantiloia eranskinetan.

Entregatzeko data:

Eskolako klaustrorako proposamen idatzia:
Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren zenbait alderdi: curriculumeko hizkuntzen trataera gure eskolan

Helburua: Eskola jakin baterako landu den proposamena modu argian idaztea klaustroan aurkezteko.

Garatzeko alderdiak: Ikastetxearen proiektu eleanitzaren oinarriak jasotzen duen proposamen honek ondoko atalak izango ditu:

- a) *Sarrera:* Labur-labur lanaren helburua, proposamena zein eskolatarako egiten den, ..
- b) *Abiapuntua:* Eskolaren eta haren inguruaren ezaugarri soziolinguistikoak
- c) *Ikastetxeko Hizkuntz Proiektuaren zenbait oinarri: curriculumeko hizkuntzen trataera gure eskolan - Oinarrizko Dokumentua.* Ikastetxean curriculumeko hizkuntzei eman beharreko trataeraren eta erabileraren inguruko puntu nagusiak (helburuak, printzipioak, jardun-irizpideak, ...) era argi eta laburrean.
- d) *Ikastetxeko Hizkuntz Proiektuaren zenbait oinarri: curriculumeko hizkuntzen trataera gure eskolan - Justifikazio Dokumentua.* Oinarrizko Dokumentuan jasotzen diren puntuen justifikazio teorikoa, ikerketek erakusten dutena eta adituen azalpenak erabiliz.
- e) *Bibliografia*
- f) *Eranskinak*

Aipaturiko dokumentu horietan garatuko diren alderdiak aurreko ematekoetan daude zehaztuta.

Ebaluazio-irizpideak: Ikus ebaluaziorako errubrika eranskinetan.

Entregatzeko data:

E.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Dokumentu idatziak (ematekoak eta eskolako klaustrorako proposamen idatzia) baloratzeko errubrika

	BIKAIN	ONDO	NAHIKOA	GUTXI
EDUKIAK	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa bikaina da. Garatzeko eskatzen diren alderdi guztiak agertzen dira eta ideiak oso modu argian eta osoan garatuta daude. • Edukiak erakusten du gaia ondo ulertu dela eta horren inguruan hausnarketa inportantea egin dela. • Aipamen bibliografikoak egiten dira. Oso ondo dokumentatua dago esaten dena. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa ona da. Garatzeko eskatzen diren alderdi guztiak agertzen dira eta ideia gehienak ondo eta modu argian garatuta daude. • Edukiak erakusten du gaia ulertu dela eta gaiaren inguruko hausnarketa egin dela. • Aipamen bibliografikoak egiten dira. Ondo dokumentatua dago esaten dena. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio nahikoa ematen du. Garatzeko eskatzen diren alderdi gehienak ageri dira, baina batzuk guztiz garatu gabe daude edota ez dira guztiz zuzenak edota ez daude modu argian garatuta. • Edukiak erakusten du ulertu egin dela landu dena eta gaiaren inguruko gutxieneko hausnarketa egin dela. • Aipamen bibliografikoren bat egiten da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa oso maila sinplean ematen da: gutxi eta azalekoa. Ez dira ideia nagusi guztiak ageri eta asko garatu gabe daude edota ez dira zuzenak edota ez daude modu argian garatuta. • Edukiak erakusten du ez dela oso ondo ulertu landu dena eta hausnarketa falta nabaria da. • Ez da aipamen bibliografikorik egiten.
EDUKIEN ANTOLAKETA	<ul style="list-style-type: none"> • Testua oso ondo antolaturik dago: edukien aurkezpena oso ordenatua eta argia da. • Erabiltzen diren ideiak eta argudioak oso ondo loturik daude, modu logiko eta zuzenean. • Informazio progresioa ondo kontrolatua dago. 	<ul style="list-style-type: none"> • Orokorrean, edukien antolaketa egokia da, ordenatua. • Orokorrean, erabiltzen diren ideiak eta argudioak ondo loturik daude. • Orokorrean, informazio progresioa ondo kontrolatua dago. 	<ul style="list-style-type: none"> • Testua nahiko ondo antolaturik dago: gehienetan, ideiak orden logikoan agertzen dira. • Ideien arteko loturek ondo funtzionatzen dute gehienetan, baina zenbait konexio ez dira zuzenak edo nahasiak dira. • Informazio progresioa egokia gehienetan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Testu nahasia, norabide argirik gabe. • Kasu askotan, ideien arteko loturak ez dira argiak edo zuzenak. • Informazio progresioa batzuetan nahiko bihurri gertatzen zaio irakurleari

<p>HIZKUNTZAREN ERABILERA (egokitasuna eta zuzentasuna)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erregistro formala erabiltzen da, tonu objektiboa, egitura sintaktiko eta lokailu aberatsak, hiztegi zehatza. • Hizkuntzaren erabilera zuzena (gramatika, puntuazioa, ortografia); ez dago akatsik edo egotekotan bakanen bat, irakurleak ohartu gabe pasatuko duena. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erregistro formala erabiltzen da, egokia, nahiz eta kasuren batean hiztegia edota egitura sintaktikoak edota lokailuak ez izan behar beste zainduak • Hizkuntzaren erabilera orokorrean zuzena da, tarteka akatsen bat edo beste egin arren, errakuntza horiek ortografikoak edota transkripzio akatsak dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Orokorrean erregistro formala erabiltzen da, baina hiztegia ez behar beste zaindua eta egitura sinpleak aberatsagoen ondoan. • Hizkuntz akatsen bat dago (errakuntza morfosintaktiko eta ortografikoak). Transkripzio akatsak ere. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erregistroa ez da egokia, nahiko adierazpen arrunta: hiztegia ez behar beste zaindua, egitura sinpleak orokorrean. • Akats gramatikal eta ortografiko asko, eta batzuetan sistematikoak. Transkripzio akatsak ere. ***
<p>LANAREN AURKEZPENA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lana egiteko emandako argibide guztiei erantzuten die modu egokian. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lana egiteko emandako argibide guztiei erantzuten die, kasuren batean moduren egokienean ez bada ere. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lana egiteko emandako argibide garrantzitsuenei erantzuten die. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lana egiteko emandako argibideak ez dira kontuan hartzen.

*** Hizkuntzaren erabileran GUTXI izateak lanean GUTXI izatea ekartzen du

Posterra (3. Ematekoa) baloratzeko txantiloia

Posterrean kontuan hartzeko eskatzen ziren alderdiak agertzen dira	1 (gutxiegi)	2	3 (nahikoa)	4	5 (bikain)
Proposamena oso ondo laburbildu da, ideia eta argudio nagusiak azpimarratuz	1 (gutxiegi)	2	3 (nahikoa)	4	5 (bikain)
Informazioaren aurkezpena ordenatua eta argia da	1 (gutxiegi)	2	3 (nahikoa)	4	5 (bikain)
Hizkuntzaren erabilera zuzena eta egokia da	1 (gutxiegi)	2	3 (nahikoa)	4	5 (bikain)
Egileak posterrean azaltzen den proposamenaren galderak modu argian eta zehaztasunez erantzuten ditu, gaia ondo ulertu dela erakutsiz	1 (gutxiegi)	2	3 (nahikoa)	4	5 (bikain)
GUZTIRA puntu				

Proposamenaren alderdi positiboak:	Proposamena hobetzeko:
POSTERRA EGIN DUEN TALDEA:	NORK BALORATU DU:



Abizena, I. (2012). Proiektutan Oinarritutako Ikaskuntza Metodologiaren Inplementazio Proposamena Ane Beldarrain Amoriza - IKD baliabideak 4 -<http://cvb.ehu.es/ikd-baliabideak/ik/beldarrain-4-2012-ik.pdf>



Aitortu - Ez merkataritzarako -Partekatu baimen beraren arabera (by-nc-sa): Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili. Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.